**Urdaibaiko Adierazpena**
**Declaración de Urdaibai**

Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Udetxea Jauregian bildu zen Jaurlaritzaren Kontseilua, 2009ko ekainaren 5ean, Ingurumenaren Mundu-mailako Egunean, eta honako adierazpen hau egitea erabaki zuen, ekonomia, jendartea eta ingurumenaren garapen jasangarria bultzatuko duen eredu baten alde. Organizazio, erakunde eta instituzio publiko eta pribatuei, ekonomiako eta jendarteko eragileei eta euskal herritar guzti-guztiei eskatzen die Kontseiluak Jasangarritasunerako Itun Sozial berri bat izenpetzeko: EkoEuskadi 2020. Aurrerantzean, Urdaibaiko Ituna deituko diogu, ingurune honen omenez.

Itun hori, politika publikoaren eta ekintza pribatuaren ezinbesteko erreferentzia-puntu bihurtzea espero dugu, eta energia ekoitzi eta kontsumitzeko egungo ereduak berrikusteko eta gure bizi-iturrietan ereduok duten eragina murrizteko beharrean oinarritzen da. Jakin badakigu azken hamarkadetan izugarri bizkortu den joera horri jarraituz gero planetaren osasunari erasan egingo zaiola, atzeraezina izango dela, eta beherako kiribil batean sartuko garela planetan bizi garen bizidun guztiok.

Ozono-geruzako zuloek, atmosferako kutsadurak, klima-aldaketak edo biodibertsitatearen galerak izan ditzaketen ondorioen alarmak jo du, adierazleetan ez ezik, baita kontzientzietan ere. Egun, badakigu erantzukizuna partekatuz egindako ekintza positiboek eta sentsibilizazio egokiak bakarrik saihestu dezaketela tamaina handiko hondamendi bat. Eta balitekeela, beste zenbait hamarkada barru, gure seme-alabek eta gure seme-alaben seme-alabek, arazo ikaragarriei aurre egin behar izatea, eta atzera egiterik ez egotea.

Azken urteotan zehar, alde askotarako hitzarmenak egin dira, erregai fosilak erreta sortzen diren gasak arautzeko: berotegi-efektua eragiten dutenak, alegia. Petrolioa, ikatza eta gasa dira erregai horiek, eta egun erabiltzen den energia-iturri nagusia eratzen dute. Hainbat mailatako politikak ezarri dira, gas horiek klima-aldaketan duten eragina arintzeko. Uretako ekosistemak, itsasertzeko hezeguneak eta egun gure itsasbazterrean bizi diren biztanleak kaltetzeko mehatxua baitugu gure gain. Ahaleginak egin dira espezie inbaditzaileak aztertu eta horiei aurre egiteko, eragina baitute pertsonen osasunean, nekazaritza eta basogintzako gure esparruetan, gure natura-erreserbetan eta, azken finean, biodibertsitatearen sare urratuan. Neurriak adostu

Reunido en el Palacio Udetxea, en la Reserva de la Biosfera de Urdaibai, el día 5 de junio de 2009, Día Mundial del Medio Ambiente, el Consejo de Gobierno acuerda proclamar la siguiente Declaración por un modelo de desarrollo económica, social y ambientalmente sostenible, e insta a las organizaciones, organismos e instituciones públicas y privadas, a los agentes económicos y sociales y a toda la ciudadanía vasca en su conjunto a suscribir un nuevo Pacto Social por la Sostenibilidad EcoEuskadi 2020 al que, en lo sucesivo, vamos a referirnos, en homenaje a este entorno, como el Pacto de Urdaibai.

Este pacto, del que esperamos que se convierta en un punto de referencia inexcusable de la política pública y de la acción privada, está basado en la necesidad de revisar los actuales modelos de producción y consumo energético y de frenar el impacto que tienen sobre nuestros recursos naturales. Sabemos positivamente que, de continuar en esa línea, que se ha venido disparando en las últimas décadas, la salud del planeta se verá afectada de una forma irreversible y que va a envolver, en una espiral descendente, la de todos los organismos que habitamos en él.

Las alarmas acerca de los posibles efectos de los agujeros en la capa de ozono, de la contaminación atmosférica, el cambio climático o la pérdida de biodiversidad han saltado en los indicadores, pero también en las conciencias. Hoy sabemos que sólo un ejercicio acompasado de sensibilización y de acción positiva y corresponsable puede evitar un desastre a gran escala, y que en unas décadas más, nuestros hijos, y los hijos de nuestros hijos, pueden estar enfrentándose a problemas de tal magnitud que, eventualmente, ya no será posible la vuelta atrás.

A los largo de los últimos años, se han promovido acuerdos multilaterales que han intentado regular las emisiones de gases de efecto invernadero procedentes de la quema de combustibles fósiles que como el petróleo, el carbón y el gas, son la principal fuente de energía de la que nos nutrimos en la actualidad. Se han implementado políticas a distintas escalas para mitigar su incidencia sobre un cambio climático que amenaza con destruir ecosistemas acuáticos, humedales costeros y poblaciones que hoy se asientan sobre nuestro litoral. Se han hecho esfuerzos para conocer y combatir la presencia de especies invasoras y su impacto sobre la salud humana, sobre nuestros espacios agrarios y

dira lurzoruak andeatzea eragozteko, hondakinen kudeaketa arautzeko, uraren erabilera arduratsua sustatzeko eta, azken batean, datu negatiboek gora egitea eragozteko. Administrazio batzuk, hasi dira neurri horien aurrean erantzuten eta beren agenda politikoan lehentasuna ematen *jasangarritasuna lortzeko eredu berdea*ri.

Eusko Jaurlaritzak egun hau eta esparru hau erabili nahi ditu, eta 2009ko ekainaren 29a egun ahaztezina bilakatu nahi du. Ziur gaude EAEk tresna berri bat behar duela, indarrean dauden politika-estrategiekin bat egin eta, hala ere, urrats bat haratago joateko.

Tresna horri izena jarri diogu: *EkoEuskadi*; eta lehen epe bat ere bai: *2020*a. Hazkundearen eredu berde batean lan egiteko beharra erakusten du zuzenean: arlokako planak onartuko dituen eredua eta ekonomia, jendartea eta ingurumenaren alderdien ikuspegi bateratua izango duena. Planeta osoari eragiten baitiote, eta gure erkidegoari ere bai.

Horretarako, Sailarteko Batzordea sortzeko konpromisoa hartu dugu. Lehendakaritza izango da batzordeburu, organo estrategiko berri horren jarduna arautuko du, eta jasangarritasuna lortzeko zeharkako politikak ezartzeari lehentasuna emango dio.

Era berean, Etorkizunerako Batzordea sortzeko konpromisoa hartu dugu; aditu independenteek osatuko dute batzorde hori. *EkoEuskadi 2020* itunaren estrategia-helburuak zehaztuko ditu batzordeak, eta lortu nahi ditugun helburuen Segimendu Batzordea izango du bere baitan.

Gure gogoan dauden helburuen artean, honako hauek daude: ekonomiaren hazkundea eta erregai fosilen erabilera lotzen dituen gurpil zoroa pixkanaka haustea, kutsatzen ez duten energia-iturri berritzaileak ikertu eta erabiltzea, mugikortasunaren patroi berrietarako heztea, auto hibridoen eta garraio publikoaren aldeko apustua egitea, gehigarri kimikorik gabeko elikagaiak eskuragarri izatea eta beste zenbait neurri. Neurri horiek nazioarte mailan onartu eta ezarriko balira, planetaren sukarra jaistea lortuko litzateke, eta egun desagertzeko arrisku bizian dauden hainbat eta hainbat espezie eta populazio onik ateratzea.

Baina gure konpromisoa ez da horretara mugatzen. Ekonomian, jendartean eta ingurumenean jasangarritasuna lortzeko itun sozialaz hitz egiteak

forestales, sobre nuestras reservas naturales y, en definitiva, sobre al abanico roto de la biodiversidad. Se han consensuado medidas para impedir la degradación de los suelos, para regular la gestión de los residuos, para promover el uso responsable del agua y para impedir, en fin, una escalada de datos negativos ante la que algunas administraciones han empezado a reaccionar dando prioridad en su agenda política a la apuesta por un *modelo verde de sostenibilidad*.

El Gobierno de Euskadi quiere aprovechar esta fecha y este ámbito y quiere hacer del día 5 de junio del año 2009 una fecha difícil de olvidar. Estamos convencidos de que Euskadi necesita de un nuevo instrumento que, en línea con las estrategias políticas actualmente en vigor, se posicione, sin embargo, un paso más allá.

Este instrumento, al que hemos puesto un nombre, *EcoEuskadi*, y un primer de horizonte actuación, *2020*, apela directamente a la necesidad de trabajar en un modelo verde de crecimiento capaz de integrar los planes sectoriales y de articular una visión integral de los aspectos económicos, sociales y medioambientales que, afectando a todo el planeta, afectan, también, a nuestra Comunidad.

Para ello, nos comprometemos a la creación de una Comisión Interdepartamental, liderada desde Lehendakaritza, que regule el funcionamiento de este nuevo órgano estratégico y confiera un carácter prioritario a la adopción de políticas transversales de sostenibilidad.

Nos comprometemos, igualmente, a la creación de un Comité de Futuro compuesto por expertos independientes que defina los objetivos estratégicos de *EcoEuskadi 2020* y que contemple una Comisión de Seguimiento de los objetivos que pretendemos alcanzar.

Entre los objetivos que están en nuestras mentes se encuentra la ruptura paulatina del círculo vicioso que une el crecimiento económico al uso de combustibles fósiles, la investigación y puesta en marcha de fuentes de energía renovables y no contaminantes, la reeducación de los patrones de movilidad, la apuesta por los coches híbridos y los transportes públicos, el acceso a alimentos libres de aditivos químicos y una batería de medidas que, si fueran admitidas y puestas en marcha por la comunidad internacional, conseguirían bajar la fiebre del planeta y mantener a salvo las numerosas especies y poblaciones que hoy se enfrentan a un riesgo real de desaparición.

Pero nuestro compromiso no se queda aquí. Hablar de un Pacto Social por la Sostenibilidad económica, social y ambiental, supone regresar a

berdintasun eta justizia nozioetara itzultzea esan nahi du. Abian dagoen ekosozialismo bateko ideien oinarrietan daude nozio horiek; bizitza babestean, guztion bizitza babestu nahi da, garapenaren eta ongizatearen kontzeptu berri batekin.

Itun horren oinarrian dauden eraldaketen haritik, beharrezkoa da gure ekoizpen-ereduek, modu irmo eta erabakigarrian, ekonomia desegitera jotzea. Horrek, ekologiaren aldetik eraginkorrago bilakatuko gaitu, eta enplegu berdea sortuko du; enplegu horretan oinarrituko da gure jendarte-ongizatearen zati handi bat. Beharrezkoa da, orobat, gure kontsumo-patroietako zaharkitze-kiribila eta energia-eralketa haustea, eta kontzientzia piztea: sutan alferrik dagoen lanpara bakoitzak naturako gure ondarearen zati txiki bat erretzen du.

Konfiantza osoa dugu euskal jendarteak jakingo duela Itun horretako erronkei aurre egiten, bere historian zehar hainbat eta hainbat desafiori aurre egin dien adore bare berarekin.

Amaitzeko, honako hau jakinarazi nahi dizuegu: Urdaibaiko Itunak beharrezko babes finantzarioa izango duela, Euskal Autonomia Erkidegoa iraultza berdearen edo hirugarren industria-iraultzaren bidean jartzeko.

Erronka horri aurre egiteko, gure lurrean bizi diren herritar guztiak eta bakoitza dira garrantzitsuak –bi milioi baino gehiago–. Gaur, gure izenean ez ezik, herritar horien guztien izenean ere izenpetu dugu Urdaibaiko Ituna: ituna itxaropenezko eta etorkizuneko konpromiso bizia bilakatuko dutenen izenean. Horien partaidetzarik gabe, ezingo lirateke egia bihurtu ez Urdaibaiko Ituna eta ez bestelako asmoak, zilegi izan arren.

Urdaibaiko Biosfera Erreserban, 2009ko ekainaren 5ean.

las nociones de equidad y de justicia que están en las bases del ideario de un ecosocialismo en marcha, y que, al proteger la vida, pretende proteger la vida de todos y de todas en el seno de un nuevo concepto de desarrollo y de bienestar.

Es preciso que, al hilo de las transformaciones que están en la base de este Pacto, nuestros modelos de producción tiendan, de forma firme y decidida, hacía una desmaterialización de la economía que, al tiempo que nos hará más ecoeficientes, generará el empleo verde sobre el que habrá de sostenerse una parte importante de nuestro bienestar social. Es preciso, también, que nuestros patrones de consumo rompan el bucle de la obsolescencia premeditada y el derroche energético y tomen conciencia de que cada bombilla que arde innecesariamente hace arder una pequeña parte de nuestro patrimonio medioambiental.

Confiamos plenamente en que la sociedad vasca afrontará los desafíos contenidos en este Pacto con el sereno tesón con que ha sabido afrontar tantos y tantos retos a lo largo de su historia.

Finalmente, queremos anunciar que el Pacto de Urdaibai contará con el respaldo financiero necesario para colocar a la Comunidad Autónoma del País Vasco en el camino de la revolución verde o tercera revolución industrial.

Para afrontar este desafío, todos y cada uno de los más de dos millones de ciudadanos y ciudadanas que hoy habitan nuestra tierra son importantes. Porque sin su concurso, ni este Pacto de Urdaibai que hoy suscribimos, no sólo en nuestro nombre, sino en nombre de todas y de todos quienes harán de él un compromiso vivo de esperanza y de futuro, ni ninguna ambición, por legítima que sea, estará en condiciones de convertirse en realidad.

En la Reserva de la Biosfera de Urdaibai, a 5 de junio de 2009.

Lehendakaria
El Lehendakari
Patxi López